



Egun on, Emily Maite Siles Rojas deitzen naiz, Santa Cruz de la Sierran bizi naiz, Bolivian, eta Domingo Savio E.P.D.B. ikastetxean ikasten dut.

Martxoan eskolak bertan behera geratu ziren eta zoritxarrez oraindik ez gara ikastetxera presentzialki itzuli.

Nire herrialdean birusa ondorio ekonomikoak izaten ari da, ez ditugulako osasungarritasun-baldintza onak eta jende askok laguntza ekonomikoa behar duelako.

Eskola-ingurunean eragin handia izaten ari da; izan ere, hezkuntza birtuala ez da presentziala bezain eraginkorra, eta denek ez dute behar den teknologia.

Jainkoari esker, pandemiak ez dit ekonomikoki eragin, beste pertsona batzuei bezala. Izan dudan arazoetako bat izan da ezin izan dudala pertsona maiteekin eta lagunekin egon, eskolak eman eta nire parrokiara joan.

Klaseak eteteak asko eragin dit , ez dudalako hezkuntza egokia izan eta teknologiarekin zailtasun handiak izan ditudalako. Denbora honetan eskola birtualak eman ditut ikastetxean zein parrokian, aitari lagundu diot etxean eta pertsona bezala hobetzen saiatu naiz. Berrogeialdian eta gaur egun etxean nago aitarekin eta nebeekin.

Oso gaizki sentitu naiz jende asko hil delako koronabirusaren ondorioz. Jende askok etxerik eta jatekorik ez duela ikustea eta jakitea eta lagundu ezin izatea, oso triste da. Ezin besarkatzea edo hurbiltzea kutsatzeko beldur garelako, oso zaila da. Are okerragoa da bere burua zaintzen ez duen eta bere buruarengan eta besteengan pentsatzen ez duen jendea egotea. Egia esan, beldur horrekin bizitzen ikasi behar dugu.

Egoera honetan, nire familia baloratzen ikasi dut, etxean duguna baloratzen, hori gutxi edo asko izan. Elkarri laguntzeak eta elkartasunak zer esan nahi duten ikasi dut, nire lagunak baloratzen ikasi dut, maitasuna eta estimua ez direla soilik ekintza fisikoekin adierazten ikasi dut.

***Eraldatzen
hasteko prest***